

B E S T A K   E T A   N E S K A K

ANTTON    ETA    PETTAN

(25 bat urte)

-----

Antton : Irunako bestetarat jin gogo duk ?

Pettan : Uste nitek ! Orhoitzen haiz, jaz, zoin gustatu ginen ? Han dituk han egiazko bestak ! Biba Panplona ! Goizeko zazpi orenetan zezenak libratzen dituztelarik, orduan orduan xintximariak !...

Antton : To ; gure ondoko atso lodi harek segurik ez zian xantzarik ukan !

Pettan : Hik errak !

Antton : Zer oihi eta karrasiak ez zituen egin ; adarren puntan ibilirik, zezenak botatu zuenean hamar metretan harat ... Gaizo emaztea ! Iduri-ta haren lekua zen han...

Pettan : Zer nahi duk ; pesta egunetan, denek nahi ditek jostatu...

Antton : Bai. Bainan halere zezenen aintzinean lasterka ibiltzeko ehun kilokø atsoak ez dituk hain zalu...

Pettan : Ez zukeian ez, ehun kilorik...

Antton : Hu ; ez urrun... Ikusi bahintu haren izterrak, han ; itzulipurdika zabilarik, harrituko hintzan ! Holakoak zitian ! (bi eskus erakusten dio largotasuna).

Pettan : Zer haiz hi, atsoen izterreri so egoiten ? Nik hango nexkatxeri diat behatzen... Pollitak dituk gero ! Biziki pollitak. Pixka bat beldurtiak ; bainan arras beroak ... Nik ezagutu nuena segurik !...

Antton : Ni ; Irunarat banoalarik ez nuk neskatxentzat joaiten. Nafarra-ko arno beltza diat jastatzen... Eta jastatuz geroz, badakik...

Pettan : O bai ! Ikusten hut oraino, karrikaren erdian etzanik, xahakoa sahetsean, segur pilda pollita hintzan...

Antton : Ago ixilik ! Ez nintian luzaz egon... So egizak ; hementxet diat oraino, poliza mutur beltz baten matraka ukaldiaren orhoitzapena... Jakin-zak laster xutitu behar ukan nuela !

Pettan : Zer derasak ; hori mototik erori hintzalarik egin huen...

Antton : Errak to , badakiak gero zer diotan... Motoko kolpea bizkar hezurrean hartu nian eta matraka ukaldia, ipurdi mazelan !

Pettan : Emeki emeki ; ez dik balio haserre hadin. Bardin irri egiteko ari nintian...

Antton : A bon ! Hobe... Uste nian... Bainan gauden hortan... Eta Lekeitioko bestetarat joanen gituk aurten ere ?

Pettan : Ezkondua izanen nuk...

Antton : Zer ? Ezkondua ? Beha zazue apo txirtxil huni ! Ez haitan deus erranik...

Pettan : Ez nintian menturatzen ...

Antton : Ez ote nauk hire lagun hoberena ?

Pettan : Bai, bai, bainan ez nakian nola has... Badakik ez duk aise...

Antton : Nahi baduk egia jakin Pettan, erranen deat garbiki ; azken denbora hotan, zerbaitez beldurtzen hasia nintian...

Pettan : Nolaz ...

Antton : Batean ; aita lagundu behar belarren egiten, bestean, ama merkaturat segitu behar ; larunbat arratsetan ere erraiten haitan, mezarat johanki hintzala, igandeko partez... Orai, ikusten diat, gatu horrek bazuela beste buztanik...

Pettan : Ez haiz gaitzitua bederen...

Antton : Gaitzitua ni ? Ago ixilik mutikoa... Pentsatzen diat halere, ezkondata ere, besta zonbait eginen dugula elgarrekin...

Pettan : Ez nuk orai arte nintzan bezain libro izanen...

Antton : Zer duk ; emazte galtzaduna hartzen ?

Pettan : Ez, ez.

Antton : Eta beraz... Eskontza ez duk gero urka bilurra...

Pettan : Ez nuk hoin usu jaliko...

Antton : Zer zirezte beti etxean egonen, ttotto eta llollo bezala ? A force, ça devient monotone hé !

Pettan : Ez diat hori erraiten...

Antton : Nik segurik ; ezkondu aintzin kondizioniak eginen ditiat ! Hopp pette !  
Ez nuk gero beti etxean egoitekoa... cloitré !

Pettan : Bordaberri-ko Xarlex ere dena espantu zian haste hartan, orai to ;  
sudurra plastran duk... bere emazte kriketa dela medio...

Antton : Xarlex-ek bere hutsa dik... Etxeko afera ezin egin eta auzoko oilanden  
ondotik badabilak, errabiatua...

Pettan : Nork erran dauk hori ?

Antton : Leku segurretik jakina diat...

Pettan : To, nere lehen berria duk...

Antton : Horiek hola ; ez haiz beraz Lekeitioko bestetarat jinen... Zer pena. Jaz  
arras gustatu gintian...

Pettan : Hi bai. Bainan nik, badakik nun pasatu nuen lehen gaua ? Otoko kofrearen  
barnean ! André eta Jean-Louis, biak edanak, lauen lekua hartzen zitean...

Antton : Zer uste duk, ez naizela orhoit ? Kofrearen barnean hintzala nahi diat.  
Eta ni, badakik nun nintzan ? Otoaren azpian ! Goizalderat, izigarriko  
hotza egin zian : hortzak kas kas kas kas ari zitzaztaian, eta poliz otoa  
gure ondoan pasatzen zen aldi guziz, behar nian bi eskus ahoa tinkaturik  
atxiki, poliz gizonak ez zaiten neri ohart ! Zeren han, ez duk arraieriarik  
gero... Tra tra ! Eta gizona pitoz gora igortzen ditek, gehiagoko  
arrazoinik gabe...

Pettan : Ez zakala erran hala ez denik...

Antton : Jakinzak, ez nuela ordu hartan, espanturik...

Pettan : Bon, bon... eta hamar pinta Pernod pasatu hintuelarik, Dantxariako bidexkatik...

Antton : Mutikoa, ago ixilik ! Nun nahi badituk poliz gizonak gorderik !...

Pettan : Barkatu... Baniak... Geroxago mintzatuko gaituk Lekeitioko bestetaz... Aita behar diat lagundu...

Antton : Baietz Pettan... hire emazte-geiari, egizkiok nere partez bi musu...

Pettan : Gaixoa ! Oren huntan nere beha dagok ! Zernahi erranen daitak...

Antton : Behar bezala hez-ak ordu deno ! Ez zaik dolutuko !

Pettan : Hi, hola segituz, geldituko haiz donado !

Antton : Ez hadila kexa neretako...

Orainokoan segurik,

Dotzenan bañitiak hamahiruno !

Daniel LANDART